



# Hilezkorrak izan al gaitzezke?

Google bezalako enpresak bizitza nola luzatu ikertzen dabilta, eta honek aldaketa sozial eta ekonomiko handiak sortuko dituela aurreikusten da. Baina, nola luzatu bizitza?

Hainbat zientzialarien arabera, zahartzea gaixotasun bezala uler daiteke, eta ondorioz, sendatu daitekeen zerbait bezala. Sendatze hau, ordea, ez da organo transplanteen bidez egingo: erantzuna gorputzeko egitura txikiak aurkitzean dago. Egitura hauek gure gorputzari gaztetzeko aginduak ematez arduratuko dira, klonazio eta DNA-ren manipulazioaren bitartez.

## Gakoa mantenuan datza

Imajina ditzagun momentu batez gorputzean bueltaka dabilzan robot txikiak, alde batetik bestera kaltetutako zelulak erreparatu eta gorputzaren egoeraren berri ematen. Nano robotek zuntzen erreparazioa, gaixotasunen garapenaren kontrola, multzo biologikoen hobekuntza, diagnostika, etab. ahalbidetzen dute, eta beraz, bizitzaren luzapena.

## Proiektuak martxan

Eta zer esan, gure burmuinaren informazio guztia ordenagailu batera pasa daitekeela entzunez gero?

Stephen Hawking-ek zioen teorian posible zela gure burmuina ordenagailu batera kopia eta hil ondoren ere funtzionatzen jarraitzea. Horretan oinarrituta sortu zen Eter9 sare soziala, non erabiltzaileak edukia sor dezakeen hil eta gero ere, hilezkortasun digitalera hurbilduz.

Dmitry Itskov-en proiektuan, Avatar izenekoa, burmuin artifizialaren sorkuntzan ikertzen ari dira, pertsonaren kontzientzia identitate zibernetiko batera pasatzeko saiakeran.

Bina-48 robota helburu berarekin sortu zen 2010. urtean, pertsona baten oroimenak eta sentimenduak bereganatzeko sortutako giza itxurako robota da.

## Ni digitala

Proiektu iraultzaile askoren sortzailea den Elon Musk-ek ere sortu du Neuralink proiektua, eta bere helburua ondorengoa da: burmuinean sentsoreak ezartzea, horrela ordenagailuekin elkar eragitea posible eginez. Elon-en ustez, denborarekin bat egingo dute adimen biologiko eta digitalak.

## Hautua

Eta zu, prest egongo al zinateke, zure gorputz eta burmuinean sentsore zein nano-robotak ezartzeko, betiko bizirik egotearen truke?

